

Kasto Orbegozo Azpeiti'ko Endore Jaunak, Karmelo Etxegarai jaunaren euskaltzain sareran, egindako itzalditxoa

Jaunak:

Ez didazute gaizki artu bear, gaur emen sortu dezuten batzar onetan eriko agintari bezela, itz labur batzuek nik esatia.

Azpeitiařak esker onekoak gera, eta eskerak emateko garayan arkitzen gera.

Etxegarai'tar Karmelo jauna guria da, oso guria, eta zuek gure eritařaren izena goratziakin, eta bera ospatutzearekin, gure eria gorafu eta ospatutzen dezute.

Zein ta nolakoa dan Etxegarai jauna, zenbateraño ko lanak erabili dituan Euskal-eriko Kondairaren baztar eta zulo guztiak bere liburu eta idaztiz bizi bizi argituaz zuei agertzea, ez da, jaunak, nere eginkizuna. Beste jaun batzuek adierazoko dizute.

Nik naikoa det, gogoz eta pozez gogorlatziakin, Etxegarai jauna azpeitiařa degula, eta emen bildu gerala gazteak, eta gazteak ez diranak, bere txikitako edo antziñako lagunak, eta lagunak ziraden semeak, gustiok bere irakaspenak gogoz entzutera.

Jaunak: udal-etxeko gela nagusiena eskatu didazute jakinduriaren eta euskal-zaletasunaren bilera au emen izafia nai zendutelako.

Mila esker, guzaz oroitu zeratelako. Euskeraren eta euskal-erriaren alde egiten dituzuten lanetarako,

ez gelarik onena, gure biotzaren berotasun guztia ere,
beti eta beti izango dezute.

Jañaitu Euskaltzain jaunak, jañaitu, Etxegarai
jauna, zuen aintzdun lanari asmoz eta jakitez.

Noiz edo noiz, Euskal-erriak ordainduko dizute.



Julian Elorza, Aldunak, Gipuzkoa'ko Aldundiaren izenean, Etxegarai jaunaren euskaltzain sareran zuzendur-

iko itz sutsuak

Gaurko jai au, edozein aldetik begiratuta, benetan da guretzat atsegiña.

Azpeitiar baten izena goratzeko da jai au; azpeitiarrentzat atsegiña izan bear' orduan. Azpeiti'n ber'tan egiten da; alde ortatik ere pozgar'i da guretzat. Euskera goratzeko, azpeitiaren izkera edera goratzeko egiña da gañera; alde ortatik begiratuta ere, atsegiñago ezin izan. Azpeitiar naizen aldetik bada, pozik baño pozikago etofi naiz jai ontara.

Jai onen poza, ordea, ez dagokigu azpeitiari bakarik: euskaldun guziori dagokigu, ta batez ere gipuzkoari. Ta gipuzkoar' guzien jai izan ezkeru, Diputazioak ezin uts egin zezakean, bere izenean norbait bidaldu gabe ezin egon zitekean. Nere adiskide Perez Arégi, Alberdi, Zelaya ta ni bialdu gaitu. Gure gogoz gatoz, bai; ta gañera Diputazioaren izenean gaude emen.

Etxegarai jauna Diputazioko langile trebe ta jakintsuenetakoa da. Urteak eta urteak dira, bere lan zail eta neketsuak Diputazioari eskeintzen dizkiola. Gure probintzi eder' onen edesti edo istoriari dagokion gairen bat jakin nai izan ezkeru, beti Etxegarai jaunarengana jotzen du gure Diputazioak. Antxiñako zerbait, gure aurrekoen gauzaren bat jakin nai izan

ezkero, Etxegarai jaunarengana beti. Berak ez dakiana beste batek jakitea gefta liteke, baña ez da ezez.

Oraindik ilabete gutxi dirala bi liburu eder argitaratu ditu gure Diputazioak. Gure lege zafen kondaira, gure fuero-pean gipuzkoarak nola bizi izan ziran argi ipiñi bearean arkitu zan Diputazioa, ta zeregin ori Etxegarai jaunaren mende utzi zuan. Eta Etxegarai jaunak, bi liburu iaio ta bikain egiñaz, Diputazioak eman zion lana ederki egin zuan.

Diputazioaren orde z gaur norbait onera etoítzea, bearezkoa zan, bada. Etxegarai jaunaren lanak, orde, beste era batekoak ere izan dira.

Azpeiti'n jaio zan, eta guk guziok bezela, euskera ederki ikasi zuan txikitán. Gero ibilaldi ta ikaskizunak ez diote —zoritxarez beste askori bezela— euskera aztu-erazi. ¿Aztu? Ez orixe. Geroz ta obeto ikasi du, geroz ta gogo obez erabili du euskera ezpañetan eta paperetan.

Gazte-gaztetandik asi zan euskeraz idazten, eta oraindik —zar ez dalarik— itzegin eta idazten du. *Bilintx* zein zan eta zer nolako olefkaría izan zan argi ipintzeko egin zuan idaztia ¿noik ez du irakuñi? Euskalefiko itxas-gizonatzaz Donostian egin zuan itzaldia ¿nolatan aztu? ¿Ta Amezketa'n Pernando berísolaria-
ren izena gogoratzeko irakuñi zan idaztia? Oiek, eta esan litezken beste askok, euskal-idazle onenen artean jaítzen dute Karmelo Etxegarai jaunaren izena.

Ta ori egia dala agertzeko, ona emen jai au. Ortarako da : Etxegarai jaunaren euskera-jakintza aintzatzat artzeko.

Euskera zabaldu, garbitu ta erakusteko arloa, *Euskaltzaindia*'k dauka. Euskaltzaindi ortan amabi euskaltzale, beti onenetakoak, izan bea dute. Bat-edo-bat ildakoan, beste befi bat izendatu bea da.

Toki bat utsik zegoan orain, eta betetzeko, Etxegarai jauna aritu dute. Gaur da bere sañera.

Etxegarai jaunaren sañerak jindar beñiak ekañiko al dizkio gure Euskaltzaindi mañteari! Gogoz, arduraz, ari dira guziak lanean. ÷la Etxegarai jaunaren laguntasunaz, oraindik indarbeñigotzen duten bazkun txalogañi ori!

Bazkun orñen egiñal guziak, orñea, alpeñ-alpeñika-koak izango dira, guziok laguntzen ez baldin badiogu. Euskaltzaindiak, bere lana bete al izateko, euskaldun guzioen laguntasuna beañ du. Euskera piztutzea, euskera zabaltzea, ez da amabi gizonen lana : guzion lana da.

Gaurko jai ontan guziok degu bada zeregiña. Guk ¿zer zeregin? Asmo beñiak aritu; Euskaltzaindiari bere lanean lagundu; euskera itzegiñaz, ibili beañ duan bidea iriki. Gure laguntasunaz asko egin dezake : bakañik uzten badegu, ezer ez.

Euskeraz itzegiteko asmoa; al degun guzian euskeraz itzegiteko asmoa aritu dezagun bada gaurko jai ontan.

Etxegarai jaunari gaur eskeñi dezaiokegun omeñik onena, orixe izango da, jaunak.

Azpeitiar jator, euskaltzale zintzo eta euskaldun bikain eta jakitun onen omenez jo ditzagun txalotsu eta beroenak.

JULIAN ELORZA (ALDUNA).

**Karmelo Etxegarai jaunak, Euskaltzaindian sartu zan
egunean irakuritako lana. Azpeiti'ko Udal-etxean 1925'**
===== **garen Garagarila'ren 25'an.** =====

Euskaltzain jaunak :

¿Nola nik aditzera eman, nola nik erakutsi zer ta nolakoa dan nik zuentzat biotzean daukadan eskerfatsuna? Nere itzak azaltzen dutena baño, nere biotzak azaldu nai lukeana asko geiago da. Eskeřak zuen artera ekaři nazutelako ; eskeřak nere sařerako itzaldia egiteko ořenbeste ta ořenbeste egunetan itxodon didazutelako : eskeřak, nere itzaldi au entzuteko, Azpeiti'ko eřira etoři nai izan dezutelako. Emen, Azpeitia'n jaio nintzan : emen entzun nuen, itzegiten ikasi baño len, gure euskera zař maite maitagaria. Emen inguruan dauden mendiak, nik lenengo ikusi nituen mendiak dira. Aurtzaroko oroipenak Azpeiti'ko oroipenai itsatsita daude neretzat. Urte asko dira, emendik atera nintzala; ordea, urteak ez dute, nere biotzean Azpeitia'rentzat sututa dagoen maitetasuna itzaltzeko indařik. Eta Euskaltzaindian, zuek ala nai izan dezutelako sařtu beař dedanean, Azpeiti'ra sařera ori egiteko ni ekařtzea, nere biotzarentzat oso pozgaria da. ¿Nola nik zuei beař bezela eskeřak eman, ni poztutzeagatik, ni geiegi goratzeagatik, zuek egiten dezutena nere begien aũrean dakustenean? Itzak ez diotena, biotzak dio; ala, gauza bat, bene-benetan, eskatu nai nizuteke : nere eskeřa nolakoa dan jakin

nai badezute, nere ezpañetatik ateratzen diran itzak ez aintzakotzat artzeko; ez dira itz oiek, baizik nere biotzak esan nai lituzkeanak, nere eskeritasunaren erakusgarri.

Zuen artera natořenean, utsune aundi bat arkitzen det alde batera eta bestera begiratuta. Ez dago emen zuen artean, Euskera'ren alde, Euskaleria'ren alde, eta Euskaltzaindiaren alde, ainbeste eta ainbeste lan egin zuen Eleizalde maitea. Buruz arģia, biotzez aundia, adiskide benetakoa, biotzean zeramana ezpañetatik ateratzen zuen gizon zintzoa, idazlari bikaña, bere Euskaleri kutuna goratzearen, al zezakeana egiteko, beti prest zegoen. Goratu nai zuen gure Euskaleri maitea, bai : ordea, Jaungoikoagana dijoazen bideetatik goratu nai zuen. Bide oietatik atera bear bazan Euskaleria'ren izena zabaltzeko, bere aberastasunak geitzeko, ęez Elizalde'gana joan berak orętarako lagunduko zuen ustean! ez orixen. Emen bildu geran guztiok ez giñan beti, Eleizalde'k esaten zuenari eta Eleizalde'k egiten zuenari baimena emateko eran : ęnorekin geřtatzen da ori, gaurko egunean gizon bakoitzak beste guzietatik aldendua ta berezitua badirudi? Ordea ęnork eta noiz, ez ezagutu Eleizalde'ren zintzotasuna? ęnork eta noiz ez ezagutu, Eleizalde, gure Euskal-eri maite maitagarriaren seme bikaiñ-bikaiñenetakoa zala? Oraindik gaztea zan gugandik aldendu zaigunean.

Bere bearen giñala uste genduenean joan zaigu. Gure biotzean utzi duen samintasuna eta zuen artean, Euskaltzain jaunak, utzi duen utsunea, aundiak, benetan aundiak dira. Eta utsune ori betetzeko, neri otsegin didazute. Nik ezin bete nezake utsune ori. Eleizalde-k egiten zuena nik ezin egin nezake. Orętarako, nik ez ditudan gauza asko bear nituzke, eta oien

artean, aspaldi nigandik iges egindako gaztetasuna. Ni zein naizen dakizutela, izendatu nazute : ala, nai nukean guztia zuei laguntzeko ezin egin banezake, nerea bakarrik ez da erua : nerekin batera zuek ere erudun zerate, nere bila etori zeratelako.

Eleizalde'ren utsunearekin batera, beste utsune bat badakust emen, nere biotzarentzat samingafia, Euskaltzaindia sortu zanean, lenengo izendatuko euskaltzainen artean, euskeralari bat bazan, euskeraz idazten zutenen artean gaiñ-gañekoa, irakurgai ezin ta edera-goen egilea; gazte-gaztetatik, nere biotz-biotzeko adiskide eta anaia bezela zan Txomin Agiré. Laster joan zan ura, ere, gure artetik. Eriotzak, ez du, ordea, Euskaltzaindian utzi zuen oroitzua inoiz ere amaituko. Eta nik orain diotana egia dala jakin nai duenak, ez du, Euskaltzaindiak orain bi ilabete aritu dituen erabakiai begiratu baizik.

¡Eleizalde! ¡Agiré! Bata, Gipuzkoan jaio, eta Bizkaian bizi zana. Bestea, beriz, Bizkaian jaio, eta Gipuzkoan bizi zana. Ni, ere, Gipuzkoara jaiotzaz, Bizkaian, eta bizkaitaren artean nago ogei ta geiago urte oetan.

Eta nere saierako itzaldia egin bear nuenean, gauza oek burura etori zitzaizkidan, eta, ala, Gipuzkoan jaio, eta Bizkaian bizi, eta bizkaitarez idatzi zuten euskaltzale batzuen gañean zerbait esatea egoki izango zala, gogoak eman zidan.

¿Badakizute nor diran euskaltzale oiek, Euskaltzaindia sortu baño lenagoko euskaltzain oiek? Mogeltañak. Markiññarak izkelkiz, jaiotzaz, ere, Markiññarak izango zirala uste nuen, orain bost edo sei urte arte. Orduan jakin nuen nongoak ziran, eta orain esango dizutet zuei, nik orduan ikasi nuena.

Euskeralarien artean bere burua jaso duten Mogel-

tañak, iru dira : Juan Antonio, Juan Ignazio eta Bizenta. Juan Ignazio eta Bizenta anai-árebak ziran, eta Juan Antonio bien osaba.

Mogel'tañak, jatoñiz, etziran euskaldunak : beren sustraia, Logroño aldetik, érderaz *Rioja* esaten zaion tokitik zetoñen. An, Alfaro'n jaioa zan Mogel-tañ Andres. Domingo, Andres-en semea, *Ruesca* deritzaion *Calatayud* inguruko eñi txikian jaio zan, 1686-ko Lotazilaren 23-an.

Domingo au, osalari egin ta Markiñara etofi zan, ez dakit Markiñako osalari izendatu zutelako, edo osalaritza ori irabazteko ustean. Eta emendik dator, Mogel'tañen Markiñarñasuna.

Juan Ignazio, Domingo'ren semea, Markiña'n jaio zan, eta Xemein'en ezkondu, Gabriela Ignazia Urkiza'rekin.

Juan Ignazio, ere, osalari egin zan. Gero ikusiko danez, Mogel'tañak, osalari edo apaiz izateko jaio ziran, au da, ariman edo gorputzean ditugun gaitzak sendatzeko.

Juan Ignazio, Markiña'n baño beste toki batzuetan geiago ageritzen zaigu. Salbatieña'n (au da, Arabako Agurain) ere, bizi izan zan, eta gero Eibar'a joan zan eta Eibar'ko osalari zala, an jaio zitzaion bere seemeen artean bikaiñena eta guretzat gogoangariena : len aitatu degun Juan Antonio euskeralaria 1745-eko Lotazila'ren 6'an jaio zan. Andik lau urtera, bere aita Eibar'tik Deba'ra joan zan, Deba'ko osalari izendatu zutelako, eta bere gurasoakin Juan Antonio, ere, Deba'ra joango zan noski.

Deba'n zer egin zuen ez dakigu. Amaika urte zituenerako Markiña'ra joango zala uste det, berak amaika urte zituenean, bere areba Manuela Markiña'n jaio zalako. Geroxeago, andik ogei bat urtera, Mañ-

kiña'n bi Mogel osalari ziran, aita-semeak, Peñaflo-
da'ko Kondeak, Alaba bitoriaf edo gazteiztafari egin
zion eskutitz batean zionez. Mogel oiek Juan Anto-
nio-ren aita eta anaia izango zirala uste det nik.

Juan Antonio'k etzuen bere aita eta aitonaren antze-
ra, osalari izan nai. Jaungoikoak eleizara otsegiten
zion, eta apaiz egin zan, eta 1788-gařen urtetik Xe-
mein'go Eleizako buru bezela agertzen zaigu. An
bertan il zan 1804-ko Ořilaren 11-an, 59 urtekin.

Juan Jose Mogel, Juan Antonio'ren iloba, eta be-
soetako zan, eta Juan Antonio'k euskeraren alde asi
zuen bidean auřera joan zan. Juan Jose, Deba'n jαιο
zan, 1781'ko Jořailaren 26'an. Au, ere, apaiz egin
zan, eta bere osabaren antzera, Xemein'go eleizako
buru, 1811'tik asi, eta 1849 arte, 1849'ko Uztaren
20'an il zan.

Bizenta, Juan Jose'ren ařeba, 1782-ko Garagařila'
ren 6'an, Azkoiti'n jαιο zan, orđuan bere aita Juan
Ignazio, len Deba'ko osalari zana, Azkoiti'ko osalari
zalako. Andik laster, osalari au il zan, eta Bizenta,
Azkoiti'tik Mařkiņa'ra eramango zuten noski. Eleute-
rio Basozabal'ekin ezkondu zan, eta alargunduta
gero, Abando'n il zan, 1854'ko Bagilar'en 29'an.

Non eta noiz jαιο ziran, eta non eta noiz il ziran
euskaltzale Mogel'tařak ořa or, itz gutxitan esan ta.
Orain euskeraren alde, Mogel'tař oiek, zeř lan egin
zituzten ikusi dezagun.

Juan Antonio'ren burutik atera eta Juan Antonio'k
idatzitakoak, nik dakifala, oek dira :

«Cristinaubaren Jaquinvidea, aita Astete-c erderaz
eguinta ceņetan aguertu ta adierazoteņ dirian itaune
ta erantzutetan gure fedeco gauzaric biarrenac. Ipini
eban bizcaico eusqueran D. Juan Antonio Moguel ta
Urquiza Marquinaco Curiac.»

Idazti au, askotan argitaratu zan: lenengo, Bitoria edo Gazteiz'en, 1805'gaŕen urtean.

Norbaitek laburŕtuta, idazti au berau, beste izen batekin, ere, argitaratu zan. Laburtu zuena Mogel ez izanaŕen, Mogel'en lanak izendatzen diranean, ezin aitatu gabe utzi diteke. Etzioten, Mogel'ek bezela *Kristinaubaren jakinbidea* deitu : beste izen beŕi bat ipiŕi zioten eta izen onekin asko zabaldu da. Ara nola deitu zioten :

«Cristiŕiau dotriŕnea, bere esplicacino laburragaz itaune eta eranzueracaz, Aita Asteteren liburuchutic aterea Bizcaitar barrucuentzat.»

Mogel'ek berak egiŕia, beste iŕoren laguntza gabe, da beste lan eder au :

«Confessio ta Comunioco Sacramentuen gaŕean eracasteac edo cembat gauza lagundu behar dien Confesio ta Comunioari ongui eguiŕiac izaiteco. Ateratzen du arguitara Guiputz itzqueran cristau euscaldunen onerako D. Juan Antonio Moguel ta Urquizac : Marquinaco cura edo anima-zaiac. Bear bezela.»

Au ere, bein baŕio geiago argitaratu da: Iruŕian, lenbizi, 1800'gaŕen urtean.

Ara orain beste lan gogoangari bat, Mogel-entzat noski zaletasunik aundienarekin egintakoa, bere euskera maitea gauza altsu eta ederak esateko gai zala erakutsi naian :

«Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o demostraci3n pr3ctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios Escritores extraŕios, y contra algunos vascongados que s3lo tienen una noticia superficial del idioma patrio, por D. Juan Antonio de Moguel y Urquiza.»

Salustio, Quinto Curcio, Ciceron, Tácito eta *Tito Livio*-k latinez esaten zutena, gure Mogel-ek euskeratu zuen lan ontan. Eta egin zuenarekin, bi gauza erakutsi zizkigun: euskera maite zuela, eta euskeraz bazekiela. Beste gauza bat ere erakutsi zigun! euskeraz, danik eta gauzarik goienak esateko lenengo lenengo bear dana, euskeraz jakitea dala. ¿Nola ezer esan euskeraz, euskeraz ez dakienak?

Eta euskeraz zekielako, besteak ere, bere gisa euskeraz egitea nai zuen. Eta orientzat 1803'garén urítean, Gazteiz'ko Larunbe'ren etxean, beste idazti au argitaratu zuen:

«Estudios gramaticales sobre la lengua euskara, por D. Juan Antonio Moguel.»

Ez dakigu Juan Antonio'rena ote zan, edo bere iloba Juan Jose'rena ote zan, Humboldt aundiak aita-tzen duen beste lantxo bat:

«Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcainas y castellanas para que se puedan entender ambos dialectos.»

Juan Antonio'renak ziran ere, bere iloba Bizenta'ren ipui onen artean sartu ziran, zortzi, itz neurítuetan egiñak. Ipui oiek, 1804'an argitaratu ziran lenbizi, eta geroxeago esango det zerbait, nondik artuak eta zer-tako idatziak ziran erakusteko.

Soraluze'k esan zuenez, Mogel'enak ziran 1816 argitaratutako elkaritz batzuek. Nik ez ditut ikusi eta bereak ziran edo ez ezin esan nezake.

Bera il ta askoz geroago, azaldu dira Juan Antonio Mogel'en idatzirik onenetakoak. Bata, 1854'an; bestea, 1881'an.

Lenengoa au da:

«*Cartas y disertaciones de D. Juan Antonio de Moguel sobre la lengua vascongada*. Au, Garibai'

ren esangiakin, *Academia de la Historia*'k argitaratutako liburu batean arkitzen da. Liburu oren izena ona emen.

«*Memorial histórico español. Colección de documentos, opúsculos y antigüedades que publica la Real Academia de la Historia. Tomo VII.--Memorias de Garibay.--Refranes vascongados, recogidos y ordenados por Esteban de Garibay y Zamalloa.—Observaciones hechas a estos refranes por D. José de Aizquivel.—Cartas y disertaciones de D. Juan Antonio de Moguel sobre la lengua vascongada.*»

Eta bestea (eta bera irakuñi-ta, burura etoñi zaizkidan oarñera batzuek, geroago ikusiko dituzute) da onako au :

«*El Doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte, o diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan. Obra escrita por el presbítero D. Juan Antonio Moguel. Durango, 1881. Elizalde.*»

Oraindik geroago, Aita Zabala'k utzitako ipuiak, gure adiskide eta euskaltzain Urkijo'k, bere *Revista Internacional de los Estudios Vascos* deritzaionan argitaratu zituenean, Zabala'ren ipuien artean, Mogel' en ipui batzuek agertu ziran. Arkibidean esaten zanez Juan Antonio Mogel'en ipuiak, onako oek ziran :

- 1.—Atso ezain, burua eder egiten ebana.
- 2.—Andra alárguna, ta oño arautzagilea.
- 3.—Oño soñularia ta lapurak.
- 4.—Otso garxotua ta aidi asko yakiña.
- 5.—Katu padaña ta eiztariak.
- 6.—Bela gaizkiñ txikia, otso gaizkiña andia ta gizona.

7.—Katamotz uzu kaiolatua, ta txakur'etse-yagola askatua.

8.—Basaurde garaun bagakoa.

9.—Aume ondo azia ta otso galtzalea.

10.—Txakur'-katu adiskideak.

11.—Añantzalea ta txibi bakaña.

Goazen oraiñ Juan José Mogel'en idazkirik ezagunenak gogoratzeraz.

Osabak erakutsi zion bideari jañaituaz, onek, ere, euskeraz idatzi zituen lan eder' ta egokiak.

Oetako bat, nik dakitala, gitxienez lau aldiz argitaratu da. Lenengo, Bilbon, 1816'gar'en urtean, Apraiz'en etxean. Baseñitar'en onerako egindako liburu au, lau bide' argitaratua izan a'ren, ez da orain non nai arkitzen. Ara nola izendatu zuen bere egileak edo bere argitaralariak :

«Baserritar nequezaleentzaco escolia edo icasbi-diac, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeneen exemplu, ta eracutsijetan. Emoten dau arguitara, Vizcaico eusqueran, J. J. M. M. C.

Andik lau urtera, Juan José Mogel'en beste liburu bat argitaratu zan. Onako au :

«Egunoroco lan on ta erregubac meza santuba ondo enzuteco : cõnfesino eta comuniyoa biar-dan leguez eguiteco prestaera eta zucen bidiaç, etc., etc. Emoten ditu arguitara Vizcaico nequezalien adisquide batec.

Mogel'ek bere izenik etzuen azaldu, lan eder' au argitaratzean. Bere burua goratu-naiak etzion lanerako indar'ik eman. Irakur'learen zoriona bilatzen zuen : ez bere aunditasuna, edo obeto, egokiago esateko, ez bere aundikeria.

Bere osabaren antzera, Juan Jose Mogel'ek erderaz, ere, idatzi zuen; baña erderaz idatzi a'ren, euske-

rari zegozkion gauzak argitzearen ondoren zebilen. Ez dago ori jakiteko, bere idatzia nola izendatzen zan ikusi baizik. Ara :

«*Plauto bascongado o el bascuence de Plauto en su comedia Poenulo, acto 5.º, escena 1.ª, y la impugnación del Manual de la lengua vasca por Lecluse, por el presbítero D. Juan José Moguel.*»

Il ta askoz geroago, Mogel onen idatzi bat argitaratu zan, eta ez bakañik bizkai-izkeran, bai ta ere Gipuzkoa'ko izkelkian. Gipuzkoárez azaldu zanak, izen au zerainan :

«*Mayatzeko loreetako itz-aldijak. J. J. Moguel.*»

Eta bizkaitárez agertu zanak, beste onako au :

«*Mayatz-illeraco berba-aldijac.* Marquiñaco ari-ma zai Juan Jose Moguel Jaunac bere azquen urteetan izcribatuac. Biar dan bai emonaz. Tolosan. 1885 Lopez'en moldizteguian.»

Peru Abarka'k dakarzkigun irakaskintza batzuek gogoratu baño len, Bizenta Mogel'ek, euskeraren alde eta euskera zabaltzeko zer egin zuen esan nai nizuteke.

Euskaltzale guztien artean, Bizenta oso ezaguna da, ipui eder batzuek egin zituelako. Ipui oriek, bere burutik ateratakoak etziran : Esopo'k egin zituen'atik artu, ta eroso euskeratuak, bai. Euskalerian, ez ezik, erdal-erietan, ere, ipuirik geienak, Esopo'renetatik itzuliak. Esopo'k berak ¿bere burutik soñtu ote zituen? ¿edo beste norbaitenetatik artu? Dana dala, Bizenta Mogel'ek, euskaldunentzat onak izan zitezkeala uste zuen, eta ala uste zuelako, poliki poliki nekazari-entzat, nekazariak aditu zezakean eran ipiñi zituen. Ipui oek euskeratzean eta argitaratzean zer gura zuen, zer bilatzen zuen, Bizentak berak, argi eta garbi, esaten digu. Entzun :

*Ipui onac, ceintzuetan arquiteco dituzten euscal-
dun necazari eta gazte guciac, eracaste ederrac
beren vicitza zuzentzeco. Ematen ditu euscaraz ar-
guitara, ume eta necazariantzat doña Vicenta Anto-
nia Moguel ta Elguezabalec. Donostian. Antonio
Undiano liburuguillearen echean 1804-garren urtean.
Bear becela.*

Beŕogeitamar ipui sartu zituen Bizenta'k mordoska eder ontan eta azkenik bere beŕogeitamar ipui oetzaz gañera, bere osabak, itz neurŕuetan egindako zortzi ipui jaŕi zituen.

Bizenta'k, ere, Aita Zabala'ren ipuiakin batera azaldu zan beste ipui bat egin zuen. Ara ipui onen izena :

*Peru atxuŕlari alpeŕagaz, Joane nekazale zin-
tzoaren atŕteko berbaikuntzea.*

Luziano Bonaparte'k diona egia bada, Bizenta Moguel'ek euskeratu zuen, 1820'an, Bilbon azaldu' zan idatzi bat, erderaz Luis Maria Borbon, Toledo-ko janzkoŕdun edo Kárdenalak egiña. Izen onekin argitaratu zan idatzi ori :

«Carta Pastoral del Cardenal Luis de Borbón, Arzobispo de Toledo, Primado de las Españas, a su Diócesis en 15 de Mayo de 1820. En castellano y vascuence.»

Bizenta'k bere ipuietan, edo egokiago esateko, bere ipuien itzaurean erakusten digun zerbait gaur gogoratzea, beaŕ bada gaizki ez litzake etoŕiko. Baña Bizenta'k diona beste baterako uztea obeto izango dala derizkiot, gaur nere itzaldia geiegi ez luzatzeko. Gaurko, *Peru Abarka*'rekin naikoa degu, *Peru Abarka*, orain eun urte ta geiago egiña izan aŕen, orain ere, an erakusten zaiguna bene benetan egia dalako.

Beseñtárák ziran, orduan euskeraz egokien mintzaten ziranak : orain ere, bai. Aundinaiak ziran orduan Maisu Juan'en antzekoak, euskera azpiratu nai zutenak, berak euskeraz ezer ongi esaten asmatzen etzutelako. Gaur, ere, ori bera gertatzen da. ¡Zenbat eta zenbat Maisu Juan ezagutzen ditugun! Euskeraz ongi ikasi nai duenak, euskeraz egoki itzezin nai duenak, euskeraz, itzak nola elkartu bear diran jakin nai duenak, Maisu Juan'en antzekoetatik gauza gutxi ikasiko du. Beti euskeraz mintzatu diran baseñtáretatik, berak uste baño geiago ikasi lezake. Bein baño geiagotan, Euskerak garo-usaia duela nik esan izan det. Eta orain ere, garo-usai ori berekin du, eta Jaungoikoak ala nai badu, nere iritiz emendik aurrera, ere, izango du.

Peru Abarka irakasle ona da. Euskeraz nola itzezin bear dan erakusten asi, ta beste gauza asko ere erakusten dizkigu. Ori gertatzen da beti irakasle onakin : berak uste baño geiago, berak nai zutena baño geiago erakusten dute. *Peru Abarka*, gogoz eta benetan irakurtzen duenak, ez du inori galdetu beařik, orain eun urte, gure Euskal-erian ola-gizonak nola bizi ziran jakiteko. Eta ez ola-gizonak bakařik. *Peru Abarka*'k erakusten digun guztia, zuen aurrean gogora ekaři nai banu, *Peru Abarka* bezelako liburu bat egin beařko nuke. An ikusten degu, orain bezela, Mogel'en egunetan ere, euskeraz itzegitea, aberatsentzat eta aberats-usaikoentzat gauza gaitza zala, euskera alde batera utzi zutelako. An ikusten degu, ere, luřaren gañean zintzo etzegoen baseñtárea, bere buruaren ondarena bilatzen zebilela. «Koipe bagako lapikuak —dio Mogel'ek— ez dau aragi mamintsu ta mardorik egingo; ez ta bere simaur bagako luřak arto eta gari ugaririk.»

Mogel'en baseñitaña, *Mogel'en Peru*, ez da, gure egunetan olerkari batzuen buruan sortutako baseñitañen antzekoa: baseñian, abereai begira, luñaren gañean izerdia isuriaz nekez bizi dan baseñitaña da. Ala ezpalitz, ez litzake egiazkoa izango. Zer nolakoa dan jakin nai badezute, entzun egiozute berari goizean, oetik jaikitzean Maisu Juan'ekin izketan asten danean:

«Banua jaztera —dio—; baña itxaron biar deustazu puska baten goizeko erégu onak Jaungoikoari egin arñeraño. Nik egunoro gosaritu, bazkaldu, ta apaldu ten dodan baizen ziur, egin daruadaz goizeko eskaarijak, ta bañdin gabaz oera baño lenago neure emazte ta umiak lagunduten deusteela. Maisu Juan, neure adiskidia; aseñatuko ezpazintxataz, esango neuskezu, ez deustudala ikusi, Kristinauba zarianen usain ta igarñgaririk. Ozta ozta, indaréz, gogo otzaz, ezin bestez, ondo iritxiz ta nagi nagi ziñiala, erdi lagundu zeunstan maiko erégubak egiten; eta autortu zeunstan, neu lotsatuteko bestian, ez bakarík etzendubala maiko jaana bedeinkatuten ta jan ostian Jaungoikoari eskeñak emoten, baita bere etzenkiyala zelan egin. ¿Eta diñozu gero irakuñlari edeña zariala? ¿Zelango liburuak irakuñi daruazuz? Gomutau zaitte, on guztiya Jaungoikoagandik yatorkula. Ez naz ni eskolauba; baña badakit nik erein arñen galgarauba soluan, ezarñ arñ zimaurña ugari, joñatu ta zalgia eskuz atera arñen, ez jatala garirik elduko, neu lo naguan artian euriyakaz gozatu ta luñ bañuban zelan ez dakidala erñe erazo ta azten ezpadau. Beraz zor deustaguz eskeñak Jaungoikoari gure bizitziari iraun egiteko emoten deuskulako zer jan. ¿Eta deritxazu gaisuak osatu gura badifuzu, ez deustazula eskatu biar Jaungoikoari lagundu dagizula?»

Oña or zein dan eta nolakoa dan *Peru Abarka* :

langilea, bene beneako langilea, lana egiteko jaiok geralako; ordea, bere lanaren indarra nondik datozen ongi dakiena. ¿Gure alegiñ guztiak zer dira, Jaungoikoak ontzat artzen ez baditu? Ara zer erakusten digun *Peru Abarkak* lenago gogoratu ditugun itzetan.

Noizik beñ, *Peru Abarkak*, berak dionari indar geiago emateko, ipui bat edo beste esaten du. Ara, ipui oetako bat :

«Eldu zan korta batera azeri bat, ta topau eban an belarluze, edo txari gizen ta mardua. Esa eutsan onek, ¿zer darabilk emen, lapur zital orek? Iri guztiak deubee go-rofo. Eizaan dabiltzanak, eruaten ditubazalako eurak il gura jituben eperak. Gurago juek i lako bat, sei eper baño, egiten ditubazan kaltiak gaiti. Etxeetan ezin ikusi abee, oluak atrapetan ditubazalako. Txakurak urinetik igarten jeutseek, botaten duan atsaz, urian abilela. Asko ostu ta beti argal beste lapurak legez. Ase olakiz, bildotskiz, ta eperkiz, ta beti aragi txarra egiten duala. Ilfen baabe bere, ezabe ezer-tako gura. ¿Ez dakusk bariz nire bizitza ona? Jan ta lo, ta nozbait urten ibiltera. Jatort neskatilia zukubaz, arta garaubaz ta gaztaniakaz. Sabelpian ta lepoganian niri igorzten oi dabil, ta bere poza da, nik ondo jaatia, gizen egitia; ta egun baten jan gura ezpadot, ilunduten jako biotza, ta dino negarez legez : jangar-zutu da gure lauonekua, ta yabil eregau ta palagetan jan eragiteko. Esaeutsan azerijak: ja tontotzara! Lo egik; gizendu adi. Maite jitubek ire odoloste, lukainka, gibel, bare, solomo, ta duan guztia. Ire urdai gozaturak urte guztian egon biarko jok egosten, kunzurun ta solomuak sutan ereten. Yatoranian epalia, ta iru edo lau gizonek oratuta, sartuten deubanian ganibeta samati eraiyeta-rano, irintzaka aguanian oiñ ezin eraginda esango dok : ¡O azeri zorionekual jeta zeinbat

dontsubagua asan ni baño! Ora zefara yo dabeen nire yan, lo, ta bizitza onak.»

Gure egunetan, beřizale asko da. Danik eta erokeririk aundiena izan ařen, gauza beřia bada, onako oientzat maitagarřia da. *Peru Abarka*'ren egunetan ere, ořelakoak baziran. Begira *Peru*'k nola erakusten digun zeř nolakoak ziran :

«Bai alan jazoten da aspaldiko urřeetan; nekezale guztiak bere badaukez euren zapatak zutoetxubetan, ta kalzerdiyak kakuan esegita. Sařtu dira kapela kerizgarřiyak, ta egal biribil ta luzedunak. Nik entzun neutsan aita asaba bati, antxina andikiyak bere ebiltzala abarkakaz, txapel batubaz, zeintzuk obago dirian buruba ta belarřiyak berotuteko kerizgarři zuk sombrerelubaren izena emoten deutseezunak baño. Jagiko balira lurřetik antxinako asabak, ez leukee sinistuko bizkaitar, ta euren ondorenguak diriala gaurko jaun, andiki ta andikigurak. Mutilak beti erabilen buruba mutildurik, ta emendi etorkeen euren izena. Gizonak azten eben ulia lepoti beera ezarteko, ta agerřtuko bazirian gizon arřtian. Neskatiak erabilezan uliak agirriyan euren garbitasunaren igargarřizat. Neska zantar jausi, ta garbitasuna galdubak, zapiyakaz estalduta burubak, lotsaturik, atzeratu ditezan bestiak dongaro egitetik. Andra ezkondubak estaldu eruezan burubak, batzuk orain legez, ta etxanderak jira askogaz. Aztu dira asko gaurko egunerako antxinako gure mutil, neskatila, gizon ta andreen jaanzi iraunkorak. Nor nor dan ĩnok ezagutu? Len ozta ezagututen zan matsardaua. Sagasti asko zirian, eta eřiko arřdao edo sagardauaz igaroten zirian bizkaitar ta beste euskaldunak. Diruba geratuten zan beřtan. Eztago ikusi baño zeinbat tolara topetan dirian etxe zaarřetan, ezerřtako eztirianak gaur. Maisu Juan ĩzeř

deritxu? ¿Zer diraustazu? ¿Nortzuk bizi zirian obeto? ¿Aen lautasuna obia etzan, gure egunetako bitxitasunak baño? Galdu gaitube arotz ta erdaldunak, ta tximino eginik jaraitu gura deutsegu aen asmuei. Nire alabak jazten dira lau lau astegunetan biar egifiari dagokan legez, ta jai egunari emoten jakola beria. Daukadazan alabak dira bikotxak, edo batera jaiyuak, ta etzara onegaz zurituko zu, dakizulako izan oi diriala nosbait irukotxak bere. Seme bata eskolauba da, liburu zalia; badaki erdera, ta euskeratuten deuskuz, gaba igaroteko, irakuñi dituban ipuinak, baña ipuin onak, garbi ta iñoren kalte bagakuak. Egoten gaxakoz auak zabalik entzuten, ume txikarñak Peru ta Mariyaren ipuin gatz bagaak entzun daruezan garaz.»

Zein edo *zeintsu* bat edo beste kenduko balitz ¿zer zati edeña nik orain irakuñi dedan, *Peru Abarka'* tik artutako zati au!

Beste orrelako zati asko nere itzaldiari itsasteko gogoia datorkit, Mogel'en izkera nerea baño zuentzat edeñagoa eta pozgarñagoa izango dalako. Baña nere itzaldia geiegi luzatu leike, eta zuek bear baño geiago aspeñtzea nere jardunarekin, gauza egokia ez da. Alaz guziaz ere, nere lana bukatu nai ez nuke, *Peru'* ri zuen aurrean beñiro izketan eragin gabe. ¿Jakin nai al-dezute nola mintzatzen zan, Mogel'en egunetan bere baseñiko izateaz pozik zegoen baseñifaña? Entzun *Peru'* ri :

«Neskatiñak, ingira; imini egizube maiya. Badakizu, Maisu Juan, zelangua oi dan baseñi etxeko janlekuba: txisiñuban zamauba zabaldu, subaren onduan egon, lapikua eraz ta uñian euki; ¿nun, Erégeren jauregietan bere mai egoki ta ayutubagorik? Uste bagian legez arñu ditugu. Jakin izan baleu Mariya nire emaztiak etorteko ziniala zu, ipiniko eutsun aparti

galanta: Gauř igaroko gara zelan alan: Uřdai zielgati ta lukainka-solomuakaz egingo dogu koipatsu; gura badozu ogi eřegutařaz, gura badozu arto berozkuakaz. Zeure aukeran eukiko dozu. Eřeten dagoz gaztařnak; egosten dago beisegiyaren ezne txito mamintsu ta koipatsuba, lapikuan dagoz urdai ta zezinaz eginiko azaak; eřeten řagar mueta asko, berazak, gazaminak, urtebetiak, domentxak, kurkubietak, gořigarřatzak, abapurubak. Buřduntziyan dakutsuz olanda ta usakumiak. Eztoĝu etxeti urten ezeren bila : usuak azten ditugu emen, ez geuk jateko ezpada eruateko arřtue-mona daukagun andiki edo abadeen etxera, ta bai noř edo noř baletoř geurera uste uste bagian. Usakume il baři ta aragi berodunak ez dabee samuřtuteko gořde biar egunen bat edo beste, epeř olagoř ta olaar irenak legez; il, lumatu, ta gardostu ezkeru sutan luma apuřetati garbituteko, eztaukee buřduntziyan sařtutia bařo, samuř ta koipatsubak egoteko. Usteko dozu biar bada, eztoĝula eukiko arřdaorik. Badaukagu, ta zeř jazuan edo zeř etořiyan beti euki daruagu gořdeeta, ez geuk edaateko, bařa bai emoteko iřor badatoř. Yazoten da nosbait etořtia andikiren bat edo beste mendi albokuetara, basauřde, epeř, edo olagořen eizara, ta jakiřnik nasala gizon prestu ta biotz onekua, datoz zerbait arřtutera lotsa ta atzerakuntza бага, ta egiten deutseegu abegi, gera ta arera txit ona; ta nosbait jazoten jakee eguraldi euritsu, ta truxu gogořak artuta, etortia ona gaba igarotera, ta geratuten dira zuřturik, iminten jakeelako apari ez txaarř ta oe garřiya, ta esan darue, ezebela euren etxeetan obeto apalduko. Agaiři nakusenian eřira jua da jai egunetan, alkarřen leyan esesten ta ekiten deustee bazkaritara eruateko, ta nauke eurakaz maiyan. Eztau etxerik galduten onelango prestutasunak.»

Aski da. Mogel'en zatiak nere itzaldian sartzea, bearekoa zan; ordea, aufera ere, zati oiek nere itzaldira ekañiko banituke; ¿ez dakizute zer gertatuko litzekean? Itzaldia, Mogel'ena izango litzake, ez nerea, eta ez didazute zuek orotarako Euskaltzaindira deitu.

¿Nondik sortu zitzaion Mogel'i, *Peru Abarka* egiteko asmoa? *Juan Luis Vives*'ek latinez irakasteko egin zituen elkarizti ederak irakurita. Ez da, ordea, *Vives*'en idazkia, Mogel'enaren iturburu. *Peru Abarka*'ren sustraia bilatu nai duenak, Mogel'en biotzean bilatu bearke du. Markiña'ko apaiz beakurñariak euskerari zion maitetasuna, euskera zabaldu eta goratzeko zeukan gogoa: ora or *Peru Abarka*'ren iturburua: ortik sortu zan, ortik atera zan gauñ ere, pozik irakurtzen degun Mogel'en idaztia.

Ordutik onera, eun ta geiago urte igaro dira. Euskal-eriak, gauza asko ikusi ditu, euskerak ere bai. Eguzkia, batzuetan lañoz edo odeiz estali-aren, beti eguzki da; eta gitxiena derizkiogunean, iñoiz baño ederago ageñtzen zaigu, gu berotzeko, luñari indañ emateko, alde guztietan argia zabaltzeko. Euskerari euskaldunak dioten maitetasunarekin, ori bera gertatzen da. Batzuetan osoro galdu dala, benetan itzali dala, badirudi; baña beñero agertzen da, beañ bada iñoiz baño indañtsuagoa, iñoiz baño sutsuagoa. Eta maitetasun ori beti bizirik, eta geroago ta biziago azaldu dedin, gure *Euskaltzaindia* sortu zan. *Ekin eta yañai*, dio onek; eta nik, nere itzaldi au bukatzeko, Euskaltzaindiaren itz oek gogora dakarzkut, eta Mogel'ek egin zuenaz oroiturik, uste det, gizon bikaiñ ark ekin zionari, guk, gauñko euskaltzaleak, eta batik-bat Euskaltzaindian biltzen geranak, asmoz ta jakitez orain eta beti jañaitu bear diogula.

† KARMELO ETXEGARAI.

Eguskitza'tar J. B. euskaltzain jaunak Karmelo Etxegarai'ri Euskaltzaindian sartu-zanean irakuritako itzaldia.

Ogeita zazpi bat urte ba dira, gutxienez; alaz ere, atzo izan bailitzan, oroitzen naiz. Gazteizko nere ikastaroa bukatu ezker, egunik galdu gabe, nere etxe-zilora, gurasoen ondora, itzultzen nintzan, beste nere ikaskideak bezela, ni ere alai ta pozez.

Nere eriko apezak, aratsalde oroz, ango Jaun baten etxean batzen ziran, eta aratsalde apalean, zerbait irakuritzeko asmoz, ara joaten nintzan ni ere. Urte baten-zein izan zan ez dizutet esango, ezpanaiz oroitzen gutxi gora-bera baizik—irakur'gai berri bat arkitu nuan etxe artan: Azkue Jaunaren EUSKALZALE. Erderazko Albistariak, ikustalditxo bat eman ondoren, sakelean sartu ta beren etxeetara eramaten zituzten apez jaunak, gero asti geyagoz eta zeatzago irakuritzeko asmoz: EUSKALZALE... ez.

Euskera zaila zekar'ela... irakuri ere ezin zutela... begiak nekarazi ta buruak austeko egiña zirudiala... au zala... ori zala... beren etxeetara eraman ere ez zuten nai izaten. Iru zenbakitafik bi gutxienez an uzten zituzten beti, eta neronek ar'itu ta nere etxera eraman ezpa'nitu, an geldituko ziran, iñor' bururik ausi gabe.

AUÑEMENDIKO LOREAREN atal batzuek orduantxe irakori nituan lenbizikoz. Oporaldia bukatu ezker, beriz Gazteizerako bidea ar'itu beari izaten nuan, eta gure lankide maite izan zan Agir'e jaunaren idazti osoa, ez

nuan aldi artan irakuñi; baña irakoñitako atalak atsegin izan zitzaizkidan eta eleztaldi berezia egin zanean, Auñemendiko Lorea eskuratu ta joranez irakuñi nuan burutik beatzeraño.

Irakuñgai onen itzauré edo sarbidea-badakizute- Etxegaraiko Karmeloren lana da. Sarbide ura idatzi zuan Jaun argi; idazle antzetsu ta bikain onek, Euskaltzaindian saritzeko noizbait, egunen baten, irakuñiko zuan itzaldiari nik erantzungo niola orduan inork esan ba'lit ja nolako pañe-algara egingo nion nik! Amets zoroa da ori-esango nion : bururik duan gizonek siñetsi ezin dezaken amets utsa!

Inolaz ere siñetsiko ez nuan egiñen au Euskaltzaindiko nere lagunak eman zidaten, eta orduan ezetz esateko kemen eta ausardirik euki ez nualako, orain nere eginkizun au, al dedan bezela ta ez nai nuken bezela, egin beaño det.

Eta ziñez, zure itzaldi mamitsu ori erantzuteko bazan gure artean ni baño gayago zanik. Batez ere, gipuzkoeraz erantzun bea zaitzun ezkeru, euskalkie xamuñ eta lirain au bere amaren magalean edoski duan edonork, irakoñiz zerbait ikasi besterik egin ez dedan gaizo onek baño eun bidañ egokiago egingo zuan lan au: nire lagunak ordea-nik ez dakit zergatik-berak garako gizonak diralarik, Euskaltzaindiko atea iriki ta zuri, Jaun agurñgai ori «Atoz bañura» esateko, gipuzkoeran garerdira ere eltzen ez naizan txiki-totel au biali naute. Au dela-ta, gutxi dakiten txiroak gizon aundi, argi ta jakintsuen auñera bezela, ni ere Euskaltzaindiko atarian labuñ eta motz, belduñi ta lotsor auñkezten natzaitzu; baña asmo ta gogo onez natoñkizula zeoñek ere badakizu-ta, atarira biali nauten mesulari baldañ onen «ongi etoñia» añ ezazu lenbizi : gero, atoz nerekin etxe barnera ta zuretzat aspaldi

degun esertokian eseri zaite. Nik egin dizudan au baño afera obe ta txera andiagoa egingo dizutela; besoak zabalik, biotza pozez, ezpañak iriz artuko zaituztela etxeko guziak esan didate, eta ontan gezurik ez dizudala esan, euskaltzain orok, bafa-bestearen ondoren, aiskide anzo eskua ertsiko dizutenean, zuk zeorok zere begiz ikusiko dezu. Euskaleriko liburutegi guziak ajolaz ikeritu ta idazti zarak-gure artean diranak beintzat-astiz eta aretaz irakuri ta aztertu dituzun langile azkar, idazle garai ta jakintsu ori, Euskaltzaindian abegi onez eta pozaren pozez artzen zaitugu. ¡Ongi etoria izan zaite!

* * *

«Ongi etoria» eman ondoren, zure itzaldi eder, luze ta sakon ori zertxobait erantzungo diot. Bere gaitzat Mogeldarak artu dituzu. Osaba ta bi iloben bizitzak, zeorok dakizun bezela, ederki edestu ta azalduaz, euskeraren alde egin zituzten lanen berri ere, argi ta garbi eman diguzu. Nik dakidala, Mogeldarak, euskera piztu ta pizkoitzeko, egin zuten lanik, aipatu gabe ez dezu utzi. Alaz ere, «Kristinau-lkasbide luzea» deritzayon eta eskuz idatzita dagoan beste liburutxo bat ba-dazaut. Mogelena dan ala ez ziu ez dakit; baña auferago bere jabe izan zan apez jaunak Mogelena zalako susmoa zeukan eta azalaren baru aldean ipiñi zion oartxo baten, orela dio.

Mogel zara (zuk esan dezun bezela), euskeraz eta erderaz ari zan: gai askotaz idatzi zuan, eta bere eskuz landuriko sail guzietan, gizon jakintsuaren loratz agiriak utzi zizkigun. Bere iloba apezak gutxiago idatzi zuan, ziñez; baña onek ere aski ta aldi artarako, naiko ongi. Beste iloba andreak ipuyak eta beste zerbait baizik ez zuan idatzi: ori ta guzi ere, emakume

zalarik, bestek egiten ez zuan aldi artan, euskeraz idazten ari zalako, gere txaloak zor dizkiogu.

Mogeldar^{ak}, beren lanaz irabazi zuten mañan ipintzeko, zuk esan dezun ori aski dala deritzat. Beriz ofi ikutu nai ba'ño, zure buru argi ta idazkoitz antzetsuaz ezin obeki egin dezun lan ori, nere esku maldar^{ez} loñindu egingo nuke : buruan ipiñi diezun burestun eder ori alpeñik galdu besterik ez nuke egingo-ta, gai ortaz jardutzeko asmorik ez det. Ori ortan bego, ta Mogeldaren aldi artaz eta gure ontaz zer-ikusⁱ duan beste zerbait aipa dezagun.

* * *

Euskaldun euskaltzale gutxi, guziz gutxi, izan ditugu gere arbasoetan. Odolez euskotar izateaz bai, gaur eguneko beren seme asko bezela, gure asabak ere maiz ar^otu dira : ontaz, emen bertan eta emendik uruti, beren buruak goretsi dituzte; baño beren jat^ori ori gauza aunditzat bazuten ere, euskeraren alde ezer egiteko, beren izkuntza zaitu, euskeraz idaz^ti ta irakur^tzeko—Madariaga ar^atiañak asafe biziz arpegian ematen zienez—beti uzkuñ eta sorayo, soñ eta goñ egon dira.

Humboldt Euskalerira etoñi auñetik, Kristau-lkasbideren bat edo beste izan ezik, beste irakur^gairik ez genuen bizkaieraz. Euskaldun oro ortan lander eta txiro asko ziran naski : baña guzien ar^{te}an, txiro ta lander^enak gu bizkaitar^ok giñan. Garai artan esnatu ta zerbait pizkoitz^en asi giñala dirudi. Euskeraren alde, auñerago ez bezela, lan-egin zan beintzat. Le-kaide ta apez batzuek batez ere, euskera lantzeko arlo oni gogoz ekin zioten. Au onegiteko, Mogel biak, Astarloa biak, Añibaño ta Bartolome Aba karmeldara aipatzea aski izango da.

Oyek bai, gogo beroz lan-egin zuten; baña, zori-

txarez, beren lana eriak ez zuan aintzat aritu. Euskal-arazoetan, auferago bezela orduan ere, eria gelbera, sorayo, otz eta gogaikoñ zebilan. Apez asko ere nola zebiltzan, Mogel'ek berak esaten digu, «Peru-Abar-kan dakañen lekaide (praile) ta apezaren arteko elkar-izketan. Praileak onela dio : «Abade askok nazaude ta gitxi-gitxi batzuk baño aurkitu ez ditut euskera zaleak. Gura leukee jakin; baña neke boga atxurlari alpeñak legez.» Euskaltzale ayen lanak apez askok ofela aritu zituzten, eta beste enparauak ¿nola?

Aundizkiak euskera aintzat artzeko, aundi ta aro-egiak ziran : baseñitarak, beren autu ta ar-emanetan egunero euskera zerabilten baseñitarak ere, narda ta goñotoz ez, baña eurite luzearen ostean beriz euria jausten ikusi oi duten gogaitza ta aspertze aundiz, aritu zituzten geyenak : begi onez ikusi, irakoñi ta erabili... gutxik, guziz gutxik : augatik egun ayetan euskeraren alde piztu zan gaña, laisteñtze iraungi, itzali zan, eta auferago bezela edo gaizkiago gelditu giñan.

* * *

Gure egun abetan ere, aul eta makal dagoan euskera pizkoñtu ta sendotzeko asmoz, lan ederik asko egin da, ta dirudianez, iñoz baño joran eta gar geyagoz. Apez, apezgai, lekaide ta Euskaleñiarekiko mañtasuna beren biotzetan nabaritu duten beste askok, euskeraren alde bene-benetan lan-egin dufe ta orain ere ba dagite : gure eritar geyentsuak, ordea; gure nekazari, arantzale ta langileak, Mogelen aldian bezela orain ere, lozoñoan daude. Gutxi batzuek bai, beren asaben izkuntza, odolaren mintzoa, abendaren asnasa bezela dala-ta, euskera mañte dufe, irakuñi ere zerbait irakuñtzen dufe, beren aurai ere irakasten die;

beste asko ta askok, ordea, ezetariko gañantzirik ez die ematen. Amaren magalean ikasi zutelako, beren ar-emanetan ba-darabilte; baña maitasun-izpirik ez die ta, zama astuna bere bizkañean daraman lepakari nekatua bezela, oyek ere aspertu, nagitu ta gogait-egiñak daudela durudi.

Zerbait irakuñi duten beste batzuek, euskerak, duan gañantzia ba-dakitela ta beren izkuntza maite dutela esango dizute. Zoritxaréz, maitasun ori mingañean baizik beste iñon ez da ageri. Euskerari indaí emateko, eskolak ipiñi bear lirakela... bear bezelako libururik ere ez daukagula... au, ori ta bestea egin bear litzakela maiz entzungo diezute erostale oyei: bien bitarñean, berak, beren etxeetan, beren aide, aiskide ta ezagunen arñean, euskerari eusteko ezertxo ere ez dute egingo. Eskola ta liburu ta beste gauza asko ere ongi letořzkigu ziñez; baña ez dauzkagula-ta, ezer ezin egin genezakela uste izan bear ote degu?

«Batez ere aurai erakutsi-esan zigun uri ontako seme argi Elorza Jaunak Durangoko Euskalegunetan. Baña ez eskolen zai egon, ez libururik ez dagoala esan. Oiek aitzakiak besterik ez dira. Etxean, kalean, baseñan, edozein tokitan erakutsi lezayoke aurari-euskera, nai izan ezkeru. Neke geigo bear dituzten makiña bat gauza buruan sartzen zaizkie aur gaxoai.»

* * *

Egi aundia da ori. Liburu gabe, eskola gabe ta etsayak gudurik gogorrena egiten digutelarik ere, guk geronek baldankeriz añtzi ta utziko ezpa'genu; euskaldunok bear bezela, ziñez eta benetan nai ba'genu, euskera biziko litzake. Auñerapide aundirik ez luke egingo, ori ez: baña... bizi? euskaldunok egiz eta zi-

ñez nai ba'genu, gure odola izoztu ta il, beren adore ta kemena guziz akituko litzaken eguneraño, euskerak ere iraungo luke.

Gere biotzen giltza geronek degu, eta geronek nai ez degula, gere gogoen argia itzungi, maitasun gaña itzali, barneko ernemin eta kimak ebaki ta gogoaren bizia irato lezaken etsairik ez dago. Euskeraren etsairik aundiena, gaiztoena, gogorrena gere baldankeri, zabañkeri izugarria da. Gure gogoen giltza geronen eskuan dagoalako, euskeraren bizia ere euskaldunon eskuan dago. Euskaldunen artean, zorigaitzoz, beren izkuntza maite ez dutenak askotxo dira, ta oraindik siñiskaitzago dana, goñoto bizia diotenak ere, ez dira gutxi. Au dela-ta, euskera iletsi beañ ote-degu?—Euskera maite dutela dioten asko, ain baldan, ain nagi ta zabañ ezpa'lira : beren maitasun ori egintzaz ba'lerakuste; berak-ez dakitenak baldin ba-dira-ikasi ta beren aurai ere irakatsiko ba'lie : beste enparau oyek euskeraren alde ezertxo egin ez aren ere, bere biziaz etsi beañik, geren ustea galdu beañik ez genuke.

* * *

Lapondarfen (erusitarfen) esakun batek dionez, araya usteltzen burutik asi oi da ta eñiak ere bai. Euskerari bere galbiderik nagusia aundizki ta aberatsetatik etofi zayo, ta eginkizun naskagarri ontan gure eñiko *ikastunak* askotxo lagundu die. Euskeraren galtzeaz eñi ikaskabeak ere bere obena, bere erua ba-du; baña gaizoak obendun danz ere ez daki. Ikasteko betarik izan ez duten nekazari ta langileak eñi bakoitzaren ayufi, mendu ta izakera bereziaz argirik ez dute : berezkin oyek zaitu naiz galdu aenbaten zaye : augatik, eña, bere izakera ori galduz, eriotza-lezara buruz-

-aure ba'lijoa ere, ori galerazteko, beren kabuz ezertxo ez lukete egingo. ¡Ez ba! Ezagutzen ez duan gauzarik, iñork ez du maite, ta maite ez duan gauza zaitzeko lanik, iñork ez dagi. Ontan gure efi ikaskabeak, Jauna gurutziltzatu zuten judatarak bezela, jakinezaz uts-egin du : beraz, efiaren obena, ikastunena baño askotaz ere txikiago izan da : gaizoak, oben egin duanik ere ez daki.

Euskera zaitzeak duan gařantzia, efi lauak ez, baña ikastunak bai, oyek ba-dakuste : geren arbasoai zenbat zoř diegun; ayengandik ařtu degun izakera berezia zein dan eta efi iraunarazteak nolako gařantzi aundia duan, ikastunak ongi dakite. Ziñez, arbasoai gere izate guzia zoř diegu. Ayek, ziran bezela euskoseme ta euskaldun izan ezpa'lira, gu ere orain gerana ez giñan izango. Beren seme geranez, zoř diegun lotsa ta itzal ořek, euskera, ayen eta gure ařteko txibista bezela dan izkuntzau, maitatzera garamazki, gure lankide izan zan Broussain jauna igitu ta eraman zuanez. Bein batean Laconbe jaunari idatzi zion au entzun ezazute :

«Gogoak eta eskolak emaiten dautaten zioaz bestalde, bertzebat ba dut eskuararen maitatzeko, hau da Eskualheřiko gauza guzientzat dudan maitatze beroa, iřintzinatik hasirik eta pilotaraino, ezen badirudit ene aspaldiko arbaso guzien mintzoak bat egiten dutela ene bihotzean, habařots handi batekin oiħu eginez eta eřanez : Eskualduna hiz, gu hire egile guziak Eskualdunak ginen, Eskualduntasuna maitatu behař duk!! Bai, segurki, ene arbaso maiteak, zien manuari jařaikiren natzayo»—Ori zion Broussain jaunak : bere efi aldeko apez batek onela dio : «Eskuaraz mintzo ziren gure arbasoak—Jendeki, ahaidego, gizaldi osoak—Eskuaraz mintzo gaiten hein ondokoak—Haurekin

bereziki, zuek burhasoak—Eskuara hain da eder, hain da maitagarri — Non behar baitiogugu laguntza ekharri-Bizi dadin maitea, orai eta gero—Berma gaiten hortarat Eskualdunak oro.»

* * *

Azken aldi ontan euskeraren kaltean egindako makurak anbat euskaldunek aitoitu dituzte, ta ori eza-gutu ta aitoitu duten gazte ikastunak ere, ez dira gutxi. Zorigaitoz, oyek, beren ikasketak egiteko, urutira joan bearak dira; baña askotxok euskerarekiko maitasun-gara beren biotzetan daramate. Ikastun orien artean ba-dira oraindik euskeraren bizitza edo eriotzari dagozkion auzi oyetzaz, zabañ, uzkuñ, sorayo ta ajolakabe dabilzanik; baña ikastun diran ezkerroz, beren begiak iriki ta Euskaleriari arteaz begira ba-dezayote, euskera ziero galtzeak lekañzkigun kalte aundiak ere oaitu ta ezagutuko dituztela deritzat. Ikastunak dira-ta; egiaren egañiz dabilza-ta, ortarako bidean daude. Biotzeko griña makurak adimen-begiak lausotzen ezpa-dizkie beintzat, oyetako asko ere, aldi gutxi bañu, besteen gogaide, beste beren ikaskideak bezela, euskaltzale egingo dirala uste genezake.

Oñela izango ote-da?—Egiaren indaña aundia data, oñela izan beañ lukela dirudi. Oñela ba'litz, gure arteko ikastun geyentsuak, gaurdaño euskeraren kaltean egindako makurak aitoitu ta itzez eta egitez— itzez bakarik ez da aski-itzez eta egitez beren buruak euskaltzale erakutsiko lituzketen egun artan, eñi lau ikaskabeak ere euskera aintzat artuko luke: jakin gabez egin duan okeña, aitoitu ta euskaltzale egingo litzate.

Uste betez itxadon oi ditugun gauza askok ere

maiz uts-ematzen digute-ta, lenbiziko ura, ikastunen euskaltzaletzea, izango dan ala ez—ziur ez dakit-eta-ezin esan dezaket : baña ori beteko ba'litz, bigarren au—erriaren euskaltzaletzea-ere egin eta beteko litzake, aurak nagosiagoetan ikusten dutena bezelaxe, eri ikaskabeak ere ikastunengandik ikasi duana egin oi du-ta.

* * *

Goyan egon diranetatik etori zayo euskerari bere gaurko auleri ta gaitz au : ikastunak, beren zabañkeriz, kalte aundia egin diote; baña sendakaya ere gaitza etori zayon bide ortatik, goifik bera, etori bea zayola deritzat. Ortik ezpa'letorkio, euskerarentzat beste sendabiderik ez dakust.

Eri lauak andizki ta ikastunengandik ikasi duan bide okera, bere kabuz, bein ere ez du zuzendu : ayek lenbizi oker ori zuzendu ezik, eria bere bide okerari jaraike zayo, ta beste ezertan egin ez duana, euskelarazo ontan egingo duanik ez uste.

Goiko mala orietan dauden andizki ta ikastunak-guziak ez baña geyentzuat bai-beren eria maite dutela dasate : beren enda ta beren jatoriz ilaraindu ta arotzen dirala diote; baña euskera gabe, *euskaldunik ezin diteke; Euskaleñirik, ain gutxi.*

Euskera dala-ta, darabilgun auzi au, nolanaiko auzia danik ez uste : galdu ala irabaziko degun ez dakit; baña auzi onen irabazte edo galtzeak, *garen ala ez erabakiko du.* Euskera zearo galduko litzaken egunean, geren izena ere galdugo genuke. Bea bada, euskera guziz galdu azen ere, gure ondorengoak beren buruak euskaldun eta beren eria Euskaleñi deituko lituzkete : izana galdu ezkeru, ordea çizen utsa

zertarako da? Beartsuari aberats, beldurtiari azari, ilunari argi, gauari egun deitzea bezenbat litzake ori. Euskaldun ez lirake izango beintzat, eta euskaldun izan ezik, izen aizun ori zertarako erabili?

Euskaleria maite dutela dioten aundizki ta ikastun oriek, beren baitara itzuli ta ori ongi oldoztu, gogoz auznartu bear lukete : ori egin ezkerok, gure efiarentzat euskerak duan garantzi aundia ere ezagutu ta aitortu bearean legozke-ta. Gure lankide gartsu ta euskalari bikain izan zan Eleizalde jaunak, ori argiro ikusten zuan, eta ain argiro ikusten zualako, eri edo gaiso zegoalarik ere, euskeraren alde lan-egiteari inoz ez zion utzi: azken asnasaraño euskera ta Euskaleria bere gogoan zerabilzkian beti gure lankide bizi ta bizkor onek. Euskera pizkoru, sendatu, apaindu ta zabaltzeko, izkilurik bearenak abek dira; idatzi ta irakuri, ikasi ta irakatsi, itz-egin, erabili, erdoitzen ez utzi. Olerkariak dion bezela : «Dezagun orok egin-bihotzez agintza—Elgarekin eskuaraz gaiten bethi mintza.»

Zinez, euskeraren alde lan-egiteko, oraingo au baño aldi egoki ta ederagorik izan da. Gauza aundirik egin gabe joan eta igazi ziran aldi eder ayek. Auferago egin bear ziran eta egin ez ziran lanak, orain aldi laburean egin bear; baña gure esakun zar batek dio. «Aldi labura, lastera ba-da, egun astia baño obe da»: beraz aldi laburean lan asko egin bearean gaudela-ta, gere kemen eta adorea ez difugu galdu bear.

Euskeraren alde egingo ditugun lan orietan, gere biotz osoa, bai, ipini bear degu : gere izkuntza maitatu ta maitarazi; geronek erabili, besteai ere, al bestean, erabili arazi; gure asmo ta erabakia orixe izan bedi. Eri ta aul dago gaxoa; baña *gere bulaen as-*

nasaz, biotzen beroaz, odolaren suaz, maitasunaren gafaz, oraindik ere sendatu ta pizkoitu diteke.

Esakun zârak dio : «Biotza ta zentzuna guduan dira bearago, izkiñuak baño». Ziñez, euskeraren alde lan egiteko; izkiñu gutxi dauzkagu gaur : antziña zabalik zeuden bide asko, orain ertsiaik daude; baña biotz eta zentzunak ere uts-emango ote-digute? Euskaldunok, azkenean, gere zentzun ona ere galdu ote-degu? Biotz gabeko epel, sorayo, koldaren batzuek ote gera? Oñbesteraño, zabañtu, kikildu, endekatu geranik ez det uste...

Eusko-ikaskuntzak onelá dei egiten digu: «Asmoz eta Jakitez». Euskaltzaindiak, osterá: «Ekin eta jarai». Euskaldun oroentzat dei egokiak dira. Euskalería ziñez maite dutenen oyu ozen eta dei zoliak dira. ¡Entzun ditzagun, geren gogoetan josi ditzagun, oleñkariak dion bezela egin dezagun : «Ohiu au aditzean, chuti gaiten denak.—Eta egin ditzagun ahal ditugunak. —Hauche dauku galdetzen gure Jainko Jaunak.—Eskualdunak egon giten bethi eskuaidunak.»
